

# Beginak: emakumeentzako oasia Erdi Aroko itomenean

CECIL JAY



LIMO WRECK



Ezkerrean, Herbehereetako Goes herriko beginak otoitzean. Alboan, Sint-Amandsbergeko beginetxea (Gante, Belgika), UNESCOk 1998an gizateriaren ondare izendatua.

LIEJA (BELGIKA), 1180. Emakume talde batek lehen beginetxea eraiki zuen. Bertsio zabalduenaren arabera Lambert Le Bège apaizaren omenez hartu zuten izena, baina bada *begina* hitzak, besterik gabe, otoizlari edo eskale esan nahi duela uste duenik ere (aleman zeharrean *beggen* aditzak otoitz egin edo eskatu esan nahi zuen, eta hortik letorke komunitate horien izena).

Bi mendetan ia etengabe gerran aritu ondoren, XII. mendean emakumeen gainpopulaztea nabarmena zen Europan. Komentuak ezkontzerik ez zuten andrazkoak gainezka zeuden. Hala, gizarte estamentu orotako hainbat emakume komunitateetan biltzen hasi ziren. Talde espiritualak izan arren, laikoak ziren; hau da, jainkoaren izenean egiten zuten lan, baina elizaren hierarkiatik eta gizonezkoen kontrolpetik at. Erabakiak demokratikoki hartzen zituzten, autarkikoak ziren eta karitatezko hainbat lanetan aritzen ziren: baliabiderik gabeko gaixoak zaintzen zituzten, neskato pobreei hezkuntza ematen zieten... Beginek nahi zutenean utz zezaketen komunitatea, ezkontzeko, eta emakume ezkonduak beginetxeetan laguntzeko aukera zuten, kanpoan bizi arren.

*Las begunas: libertad en relación* lanean Elena Botinas eta Julia Cabaleirok honela deskribatzen dituzte komunitate berezi horiek: “Guneok ez ziren ez domestikoak, ez klaustralak, ez heterosexuak. Emakumeek ahaide-

tasun patriarkalaren sistematik at partekatzen zituzten espazioak ziren, espazioaren eta komunikazioaren zatiketa gainditu zituztenak, inguruko gizartearen errealitatera zabaldu zirenak”.

Sortu eta berehala beginetxeak emakume aberatsen oinordetzak eta emaitzak lortzen hasi ziren. Horri esker, komunitate berriak sortu ziren Flandrian, Brabanten eta Renanian. Baina hierarkia katoliko hertsia erretza ere piztu zuten. Elizari zegozkion ondasunak “desbidertzen” ari ziren, eta heresia salaketak erabiltzen hasi ziren beginen hedapena geldiarazteko. 1310ean, esaterako, Marguerite Porete poeta sutan hil zuten “gizonezkoak seduzitzeagatik”. Gizonezkoak baino gehiago, emakumezkoak seduzitu zituen bizimodu alternatibo hark, eta gizonak kezkatu, “emakumeei, emazte edo moja izan gabe, gizonezkoen menpekotasunetik libre bizitzea proposatu zielako”, Régine Pernoud historialariaren arabera.

Hedapena eten egin zen, beginetxe gehienak Flandriara mugatu ziren berriro, beginek hasierako hainbat ezaugarri uko egin behar izan zieten bizirauteko eta eliza katolikoaren nahira etorri ziren. Iragan apirilaren 14an, Marcella Pattyn, munduko azken begina hil zen 92 urte zituela, beginen komunitateen jatorrizko esentzia hil eta mende batzuetara. ■



## Arrastoak

### Zer itxura izango lukete gaur zenbait pertsonaia historikok?

TELEGRAPH



YESTERDAY historiari buruzko telebista katearen enkarguz, artista digital eta historialari talde batek hainbat pertsonaia historikok gaur egun izango luketen itxura landu eta irudikatu du. William Shakespeareri *hipster* itxura eman diote (irudian); Nelson almirantea gizendu egin dute, eta protesi

moderno jarri diote galdutako besoan; Henrike VIII.a Ingalaterrako erregea, aldiz, argalago ageri da irudi birtualean; Marie Antoinetten fribolitatea nabarmendu dute, bularrak operatuta eta Paris Hiltonen estilora ekarrita... Irudiak [www.telegraph.co.uk](http://www.telegraph.co.uk) guneko argazki galerian daude ikusgai. ■